



## IDAZLAN LUZEA ETA LABURRA | Ohar orokorrak |



1. Bina gai dituzu aukeran. **Bakoitzean bat hartu** behar duzu eta garatu.
2. Ebaluatzean, honakoak izango dira ardatz:
  - Atazaren zehaztasunak betetzea (laukietan adierazitakoak)
  - Hizkuntz aberastasuna / egokitasuna / zuzentasuna
1. Baliogabetu egingo dira pasarte eginak (sarrera, amaiera edo lerrokada aurrez prestatuak, orokorrak), gaiarekin edota agindutakoarekin (enuntziatua) lotura zuzenik eta argirik ez dutenak.
1. Oharra: anonimotasuna babesteko, idazlanetan ez ipini zeure benetako daturik (izen-deiturak, helbidea...)

## IDAZLAN LUZEA | *Iritzi-artikulua* | Argibideak |


Hartzen duzun gaia garatzeko iritzi-askatasuna duzu. Baina, beti ere, jokatu begirunez: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak, erlijioen aurkakoak...



Atazaren zehaztasunak →	Bete beharrekoak ○
NORI ZUZENDUA	Informazio aldizkari bateko irakurleei
TESTU MOTA	Iritzi-artikulua
MOLDEA	Euskara batua
HITZ-KOPURUA	<b>Gutxienez 250 hitz</b> (tintaz)
TESTUAK IZAN BEHAR DITUEN OSAGIAK:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaiaren <b>sarrera</b> edo aurkezpena.</li> <li>• Dosierrean, <b>GIDOIRAKO</b> laukian proposatutako <b>ideia batzuk</b>. Horiek osatu, konparatu, erlazionatu...</li> <li>• <b>Adibideak</b>, garatu dituzun argudioak edo ideiak osatzeko.</li> <li>• Amaitzeko, aukeran:                     <ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>konklusioa</b>, garrantzizkoena laburtzeko</li> <li>2. <b>proposamena</b>, arazoa hobetzeko</li> </ol> </li> </ul>	

## IDAZLAN LABURRA | *Gutuna edo gogoeta* | Argibideak |

**Moldea**, aukeran, hartzailearen arabera: batua / euskalkia\* / hika\* / berorika\*  
**\*Maila jasoan. EZ** lagunarteko "hizkeran bezala" (fonetismoak, hitzen kontrakzioak...).  
 Eta ortografia zuzena.



Atazaren zehaztasunak →	Bete beharrekoak ○
NORI ZUZENDUA	Ezezagun bati / adiskide bati / norbere buruari
TESTU MOTA	Gutuna / mezua / txosten laburra / gogoeta / kronika
MOLDEA	Euskara batua / euskalkia* / hika* / berorika*
	*Aukeran, hartzailearen arabera, beti ere maila jasoan
HITZ KOPURUA	<b>Gutxienez 150 hitz</b> (tintaz)
TESTUAK IZAN BEHAR DITUEN OSAGIAK:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Agindutakoari</b> erantzuna / <b>oinaren</b> jarraipena</li> <li>• Testuingurua kontuan harturik, <b>egilearen ikuspuntua</b></li> <li>• <b>Molde sinesgarria</b>: pertsonala, tonu egokia...</li> <li>• <b>Amaiera</b> egokia</li> </ul>	